HELDUENTZAKO
NAZIOARTEKO
TXOTXONGILOEN
# XII. MOSTRA MUESTRA
INTERNACIONAL
DE TÍTERES
PARA ADULTOS

BERGARA
**URRIA / OCTUBRE**
**23-24-25-26**
2014



Antolatzaileak:

Laguntzaileak:

**Azaleko argazkia:** Merlin Puppet Theatre
**Diseinua:** Eneko Etxeandia

*"Ametsa eta errealitatearen arteko mugan mugimendu xume bat baino ez: begien keinua"*

*"Entre el sueño y la realidad tan solo hay un sutil movimiento: el de cerrar y abrir los ojos"*

(Jan Svankmajer)




# GRANUJAS A TODO RITMO

URRIAK 23, OSTEGUNA 19:00

KALEAN ZEHAR

**MG PRODUCCIONES**
**Kantabria**

Txotxongilo erraldoiekin animatutako kaleko musika ibiltaria.

Bergarar eta bisitariak Rhythm ´n´ Blues musikarekin dantzan jartzeko prest aterako den musikari alprojen taldea. Jack eta Elwood txotxongilo erraldoiekin batera, saxoa, tronboia, tronpeta, tuba, danborra eta dunbala izango dituzte lagun.

Blues Brothers taldearen eta Blues Estandarraren abestiek osatzen dute errepertorioa.

Música de calle itinerante con títeres gigantes.

Grupo formado por un puñado de músicos granujas dispuestos a hacer bailar a todos al compás del Rhythm´n´Blues. Van acompañados por Jack y Elwood en formato de títeres gigantes. La formación se compone de Saxo, Trombón, Trompeta, Tuba, Caja y Bombo.

Repertorio formado por temas de los Blues Brothers y Estándar de Blues.



# EL CUBO LIBRE

URRIAK 24,
OSTIRALA
19:00

SEMINARIOKO
KARPAN

**DROMOSOFISTA**
**Italia**

“El Cubo Libre” zuzeneko musikaren eta transformismoen arteko kaos delikatua da, Europako 50 jaialdi baino gehiagotan parte hartu duen ikuskizuna.

Kubo beltz neutro baten inguruan, lau pertsonaiek transformismo surreal eta poetikoez jositako espiral bati ematen diote hasiera. Zuzeneko musika dute lagun. Bi jertsek beraien maitasun istorio trajikoa kontatuko digute, baliteke gitarra jole batek tango kartsu bat jotzeko lau eskurekin nahikoa ez izatea, musikari nano batek bi dantzari bitxien ikuskizuna aurkeztuko digu...

“El Cubo Libre” musikaren bizitasunaren, kaleko antzerkiaren eta objektuen antzerkiaren arteko topaketa da.

“El Cubo Libre” es un delicado caos entre música en vivo y transformismos, un espectáculo que ha actuado en más de cincuenta festivales en toda Europa.

Alrededor de un neutro cubo negro, cuatro curiosos personajes dan vida a una espiral de transformismos surreales y poéticos, acompañados por música en vivo. Dos  jerséis tomarán vida para contarnos su trágica historia de amor, a un guitarrista podrían no bastarle cuatro manos para ejecutar un tango apasionado, un músico enano nos presentará la danza de dos bailarines fuera de lo común...

“El Cubo Libre” es el encuentro entre la vitalidad de la música, la espontaneidad del teatro callejero y la poesía del teatro de figura.

# CLOWN'S HOUSES

URRIAK 24,
OSTIRALA
20:00

ZABALOTEGI
ARETOA

**MERLIN PUPPET THEATRE**
**Grezia**

Sei pertsonaia bost solairuko eraikin batean. Beraien bizitza miserableak arrastaka daramatzaten pertsonaia grotesko eta komikotragikoak. Ez dira heriotzaren beldur, bizitzaren beldur baizik.

Ikusleak, ingurune ilun eta klaustrofobiko batetik bere eguneroko bizitza konbentzionala behatzen du. Bere beldur eta obsesioak. Bere bakardadea.

Merlin bizimodu modernoari itxura tragikoa ematen dio, izatez horrelakoa delako. Ikuskizuneko gela ilunen bidez, pertsonaia bakoitzaren errealitate bakartia erakusten da. Etxe-espetxeak, ohituran harrapatutako izakiak, beren desio eta ametsetatik oso urruti.

Un edificio de cinco pisos con seis personajes centrales. Personajes grotescos comicotrágicos que “arrastran” la existencia de sus vidas miserables. Que no tienen miedo a morir, pero temen vivir.

El espectador observa desde un entorno oscuro y claustrofóbico su vida convencional cotidiana. Sus miedos y obsesiones. Su soledad.

Merlin Puppet da un aspecto trágico al estilo moderno de vida, ya que esencialmente lo es. A través de los cuartos oscuros de las “Clown's Houses”, se muestra la realidad solitaria de cada personaje. Casas-cárceles, criaturas atrapadas en la costumbre, muy lejos de sus sueños y deseos.





# HISTORIETA DE UN ABRAZO

URRIAK 24, OSTIRALA 22:30

GAZTETXEA

**DROMOSOFISTA**
**Italia**

Musikaz eta antzerkiz, itzalez eta txotxongiloz, ametsez eta misterioz osatutako irudizko mundua sortzen dute Facundok eta Rugiadak. Aspaldiko maitasuna, bi itzalen arteko topaketa, galdu den sirena, irudipen bat, ekaitza... Ikuskizuna objektuen antzerkiaren inbentarioa bat da, eta ezusteko askotariko sekuentziak sortzen ditu.

“Historieta de un abrazo” 2009. urtean sortu zen, eta FNAS-eko (Federazione Nazionale arte di Strada) “Cantieri di Strada” saria jaso zuen, gazteen kategorian aurkeztutako proiektu hoberenera. Eta ikuskizun hoberenera saria Gante (Belgika) hirian egiten den objektuen antzerkiaren nazioarteko mostran.

Facundo y Rugiada dan vida a un mundo imaginario hecho de música y teatro, sombras y títeres, sueños y misterios. Un antiguo amor, un encuentro entre dos sombras, una sirena que se ha perdido, una visión, una tormenta... El espectáculo es un inventario del teatro de figura, y genera una variedad de secuencias sorpresivas, donde los actores asisten como si fueran momentos de vida.

“Historieta de un abrazo” fue creado en 2009, y recibió el premio de “Cantieri di strada” de la FNAS (Federazione Nazionale arte di Strada) como mejor proyecto en la categoría jóvenes, y el premio mejor espectáculo en el marco del festival internacional del teatro de figura de la ciudad de Gante, en Bélgica.



# KATILUKADA

SEMINARIOKO KARPA

URRIAK 25, OSTIRALA 13:00

**KONTAKATILLU**
**Euskal Herria**

Katillu bertsolari ohia da, azken hogeita hamar urtetan herriz herri ipuinak kontatzen dabilena, bere lagun txotxongiloekin batera. Bera da 'txiringito'ko burua. Orain sukaldari, orain foko teknikari, orain dantzari, orain bertsolari... Denetik egiten du, eta, zeregin baten eta bestearen artean... ipuinak aurkezten ditu.

"Katillukadak" txotxongiloak manipulatzeko bost teknika erakusten dituen antzezlana da. Lau ipuin labur antzezten dira, bakoitza teknika banarekin, bakoitza mezu banarekin.

Katillu ha sido bertsolari, se ha pasado los últimos 30 años contando cuentos de pueblo en pueblo, acompañado de sus amigos los títeres. El es el jefe del "txiringito". Ahora cocinero, ahora técnico de luces, bailarín, bertsolari... Hace de todo y entre un quehacer y otro presenta cuentos.

"Katillukadak" es un espectáculo que muestra cinco técnicas diferentes de manipulación de títeres. Se escenifican cuatro cuentos breves, cada uno a través de una técnica y con un mensaje propio.



# ALLEGRO MA NON TROPPO

ZABALOTEGI ARETOA

URRIAK 25, LARUNBATA 20:00

**ZERO EN CONDUCTA**
**Balentzia, Mexiko, Italia**

Batzutan maitasuna itsua da, eta, bestetan, maitaleak ikusezinak. “Allegro ma non troppo”k istorio ezberdinak erakusten ditu. Fereka baten istorioa, besarkada baten bi aurpegiak, bere maitaleari bere argi propioarekin idazteko ahaleginak egiten dituen flexo baten abenturak, sentitu bai, baina ikusi ezin daitekeen izaki baten bizipenak... Pieza guzti hauek, bere maitasuna amesten duen edo amesten duena maitatzen duen ez dakien bikote baten mosaikoa sortzeko.

Antzerki fisikoa, objektuak eta txotxongiloak erabiltzen dituen ikuskizuna. Maitasunari, noraezean eta itsu makilkadak ematen dabilen horri merezitako omenaldia eskaintzen zaio, eta horri buruz hitz egiten da.

Unas veces el amor es ciego y otras… los amantes son invisibles. “Allegro ma non troppo” no tiene solamente una historia, si no varias. La historia de una caricia, las dos caras de un abrazo, las peripecias de un flexo para escribirle a su amor iluminado por su propia luz, las vivencias de un ser que no se ve pero que se deja sentir… Todas estas piezas, para formar un mosaico en el que una pareja no sabe si sueña su amor, o ama lo que sueña.

Un espectáculo visual que utiliza los títeres, los objetos y el teatro físico para hablar de ese loco que deambula ciego por la vida dando bastonazos sin reparar a quién le da y que, aún así, merece un homenaje: el Amor.



Eskuak eta kristal baten gainean isuritako hondarra, hori besterik ez du behar Borga González ilustratzaileak ikusleari mota guztietako emozioak eragingo dizkioten istorioak sortzeko. Hauek eszenatoki gainean bideratuko dira eta pantaila handi batean proiektaturik ikusi ahal izango dira. Bere eskuak mugituz giro ezberdinak bisitatuko ditu. Inor axolagabe utziko ez duen kreazio eta asmamen garbia. Roc Sala Coll teklistaren konpainiarekin.

# SUEÑOS DE ARENA

**BORJA YTUQUEPINTAS**
**Katalunia**

URRIAK 25, LARUNBATA
22:30

SAN MARTIN PLAZA
(Euria egiten badu, karpan)

Sólo con las manos y arena sobre un cristal, el ilustrador Borja González realizará sobre el escenario, y proyectadas en una gran pantalla, historias que provocarán todo tipo de emociones en el espectador. Pasará por diferentes atmósferas solo con un movimiento de sus manos. Pura inventiva y creación que no dejarán indiferente a nadie. Con la compañía del teclista Roc Sala Coll.

URRIAK 26,
IGANDEA
19:00

# LANA

SEMINARIOKO
KARPA

**PEZ LIMBO**
**Euskal Herria**

"Lana" kaleko ikuskizun bat da, eta ez dauka testurik. Akzioak, irudiek eta soinu-espazioak atmosfera berezia sortzen dute, eta honek errealitatetik onirikora doan esperientzia batekin estaltzen du ikuslea. Eszenaratzeak antzerki fisikoa, dantza elementuak, txotxongiloak eta maskara lanak konbinatzen ditu. Eszenografia protagonista aktibo bat da, izan ere, antzezlanaren zehar itxuraldatuz doa, istorioa garatzen den klima erabat aldatzen duelarik.

Ikuskizuna adin guztietako ikusleentzat da egokia. Elementu komiko eta poetikoak eguneroko estilo garaikidean garatzen dira, eta horrek askotariko ikusleei antzezpena gertutasunez eta enpatiaz bizitzea ahalbidetzen die.

"Lana" es un espectáculo de calle sin texto. La acción, las imágenes y el espacio sonoro crean la atmósfera que envuelve al espectador en una experiencia que va de la realidad a lo onírico. La puesta en escena combina teatro físico y elementos de danza, títeres y trabajo de máscara. La escenografía es un protagonista activo, ya que va transformándose a lo largo de la obra, modificando el clima en que se desarrolla la historia.

El espectáculo está dirigido a todos los públicos. Los elementos cómicos y poéticos se desarrollan con un estilo contemporáneo y a la vez cotidiano, lo que permite que un amplio abanico de espectadores viva la representación con cercanía y empatía.





# TRAU

**GUILLEM ALBÀ**
**Katalunia**

Ongietorri. Aurrera, eseri eta gozatu. Ez duzue, ziur aski, inoiz horrelako mundu bat ikusi. Eta, ziur aski, ez duzue inoiz ezagutzear zaudeten bezalako pertsonaia bat ikusi. Bizi duen guztia gordetzen du. Amaierara iritsi baino lehen, momentu guztiak pilatu eta poteetan sartzen ditu. Amaitu gabeko momentuak dira.

"Sketchofrenia" eta "Flirt" ikuskizunekin lortutako arrakastaren ondoren, Guillem Albàk "Trau" aurkezten du. Absurdoa eta txotxongiloen antzerkia ukituz, komediatik poetikara doan umorezko ikuskizuna.

Bienvenidos. Pasen, siéntense y déjense llevar. Seguramente no han visto nunca un mundo como éste. Y, seguramente, tampoco han visto nunca un personaje como el que están a punto de conocer. Guarda todo lo que vive. Envasa y almacena todos los momentos antes de que lleguen al final. Son momentos inacabados.

Tras los éxitos logrados con "Sketchofrenia" y "Flirt", Guillem Albà presenta "Trau", un espectáculo de humor, visual, que viaja de la comedia a la poética, pasando por el absurdo y el teatro de títeres.

URRIAK 26,
IGANDEA
22:30

ZABALOTEGI
ARETOA

# EGITARAUA

## URRIAK 23 OSTEGUNA

**19:00**
**Kalean Zehar**
"Granujas a todo ritmo"
MG Producciones
Kantabria

## URRIAK 24 OSTIRALA

**19:00**
**Seminarioko Karpa**
"El Cubo Libre"
Dromosofista
Italia

**20:00**
**Zabalotegi Aretoa**
"Clown's Houses"
Merlin Puppet Theatre
Grezia

**22:30**
**Gaztetxea**
"Historieta de un abrazo"
Dromosofista
Italia

# ZER? NON? NOIZ?

## URRIAK 25 LARUNBATA

**13:00**
**Seminarioko Karpa**
"Katilukada"
Kontakatillu
Euskal Herria

**20:00**
**Zabalotegi Aretoa**
"Allegro ma non troppo"
Zero en conducta
Balentzia, Mexiko, Italia

**22:30**
**San Martin Plaza**
(Euria egiten badu, karpan)
"Sueños de Arena"
Borja Ytuquepintas
Katalunia

## URRIAK 26 IGANDEA

**19:00**
**Seminarioko Karpa**
"Lana"
Pez Limbo
Euskal Herria

**20:00**
**Zabalotegi Aretoa**
"Trau"
Guillem Albà
Katalunia

